

OSTIRALA, 2025eko IRAILAREN 5a

Hondarribiko Jai Nagusiak

HONDARRIBIA

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Iritsi dira Jai Nagusiak

**Hondarribiko Jai Nagusietan egun
seinalatu asko daude. Ofizialki hilaren
7an hasiko dira, baina aurretik badira
ekitaldi dezente • 19-26**



Goieko

GOI MAILAKO EKOLOGIA

943 634 536 www.goieko.com

Gora Hondarribiko
jaiak!



Hitza

«Musikaz bizi izan naiz, nire lanari esker jan badut ere»

ALBERTO LASA ANSALAS OMENDUA

Hilaren 7an jasoko du Alberto Lasak udalak ematen duen Urrezko Intsignia. Ekitaldia eguerdiko 12:30ean izango da udaletxeko areto nagusian. Herrigintzan egindako lanagatik omenduko dute.

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

Hunkituta eta eskertuta heldu da Alberto Lasa elkarriketara. Urrezko

Intsignia jasotzea berezia izango dela aitortu du musikariak. Izan ere, duela 51 urte haren aitak jaso zuen intsignia bera jasoko du igandean.

Noiz jakin zenuen Urrezko Intsignia jasotzeko hautagaia zinela?

Abuztu bukaeran jakinarazi zidan alkateak [Igor Enparanek] azken hiru hautagaien artean nengoela eta bertan egon nahi nuen galdetu zidan. Baietz esan nion, eta segidan publiko egin zen bozketa.

Intsignia jasotzeko boto gehien zuk zeuk jaso zenituen. Nola jaso zenuen albistea?

Ostiral batean bildu zen udal batzordea emaitzak aztertzeko, eta egun horretan bertan jaso nuen alkatearen mezua. Baina zenbakia gordeta ez nuen ez nuen deia hartu. Propaganda izango zela pentsatu nuen. Ondoren, Whatsapp mezu bat jaso nuen zeinak bueltan deitzeko zioen, baina ez zuenez nor zen zehaztu, ez nion deia itzuli.

Astelehenean, ordea, kontaktu hark alkatearen argazkia zuela konturatu nintzen [barrez], eta deia itzuli nion. Hala jakin nuen.

Zer suposatzen du zuretzat Hondarribiko Urrezko Intsignia jasotzeak?

Esanahi handia du niretzat. Duela 51 urte nire aitak jaso zuen intsignia eta orduan ja errekonozimendu hark asko suposatu zuen familiarentzat. Orain aitorpen hau jasotzea izugarria da. Errekonozimendu bikoitza da.

Inoiz imajinatu izan duzu intsignia jaso zenezakeela?

Inoiz esan izan didate erdi brometan intsignia jasotzea merezi nuela, baina besterik gabe.

Musikari gisa izan duzun ibilbideagatik, zein herrigintzan egindako lanarengatik jasoko duzu intsignia. Nola bizi izan duzu ibilbide hori?

Txikitan hasi nintzen horretan eta gustuko nuena egiten jarraitu dut bizitza osoan zehar. Jendearen laguntza eskertu nahiko nuke ere bai, jenderik gabe ezin baita ezer egin.

Zer izan da musika zuretzat?

Dena izan da niretzat. Beti esan izan dut musikaz bizi izan naizela, nire lanari esker, informatikari esker, jan badut ere. Nire pasioa, entretenimendua eta zaletasuna izan da beti. Nahiz eta zenbaitetan gehiago izan duen lanetik entretenimendutik baino.

Lan hori guztia Hondarribian egin duzu, ala bertatik kanpo ere egin duzu ekarpena?

Batez ere Hondarribian aritu naiz, baina Etxalarrekin (Nafarroa) harreman estua dut. Nire ama bertakoa zen eta etxea dugu bertan. Duela zenbait urte pastoral bat egin zen han, eta abesti pare bat prestatzeko eskatu zidaten. Azkenean sekulako lana izan zen. Abestiak egin gabe zeuden! Eta orain koru bat sortu da herri abestiak kantatzeko.

Egon zaren abesbatzetatik eta egin dituzun lan guztietatik zeinek bete zaitu gehien?

Oso alderdi ezberdinak dira. Txistua ezin daiteke koru batekin alderatu. Txistuak gauza asko ditu eta Parro-

kiako abesbatza herrian sentipen asko sortzen dituen tradizioa da. Oso koru kurioso da, eta oso ondo funtzionatzen du. Goxoki korua, berriz, ahots grabeen korua da eta herri abestiak kantatzen ditugu. Oso fazeta ezberdina da.

Eta oraindik aktibo jarraitzen duzu?

Erdi aktibo. Izan ere, osasunez delikatu samar nago, eta badaezpada nire ardura guztiak delegatu ditut. Beno, ia guztiak. Zenbaitetan ez dut eskuordetzea lortu, ez baita erraza. Osasuna

«Txikitan hasi eta gustuko nuena egiten jarraitu dut bizitza osoan zehar»

«Ez dut lurra zapaltzerik izan oraindik, airean jarraitzen dut; egun berezia izango da»

hobetzen bazait ikusiko dut zer egin orduan.

Oraindik lanean segitzeko indarrak badituzu.

Bai, eta itzultzeko esperantza izan behar da. Gero, bada, ikusiko dugu zer egin. Nire egungo ardurak hartzen dituzten pertsonak lan handia jasoko dute.

Txistuan, adibidez, igandero goizeko 08:00etan jotzen da alborada. Lehen

lau pertsonak egiten genuen lan hori astebururo. Beste garai batzuk ziren eta beste pentsatzeko modu bat genuen. Baina horietako bik erretiroa hartu zutenean, nekea zela edo osasuna zela, aldetaren bat egin behar genuela ikusi genuen.

Noski, gazteak erakartzea oso zaila da. Are, igandero egin behar badute. Orduan, Musika Eskolarekin hitz egin genuen eta bertako txistulariekin txandaka aritzeko proposamena onartu zuten. Urtebeteren ondoren gazteei galdetu genien ea zer iruditu zitzaientzen esperientzia, eta erantzuna gutxitan jotzen genuela izan zen [barrez].

Hortxe jarraitzen dugu. Iganderen batean jotzea ezinezkoa bazaizu, abisatu eta aldaketa eskatzeko aukera dugu. **Zure aitak duela zenbait urte Urrezko Intsignia jaso zuela aipatu didazu lehen.**

Bai, eta arrazoi berberagatik gainera! **Beraz, orduko hartako ekitaldi hura berezia izango zela zuretzat. Igande honetan zuri egokituko zaizu intsignia jasotzea. Nolako eguna izatea espero duzu?**

Bada, ez dut ideiarik ere zer nolako eguna izango den igandekoa. Ez dut lurra zapaltzerik izan oraindik, airean jarraitzen dut. Ez dakit zer esango dudanez. Hori bai, argi dut eskerrak emango ditudala. Ekitaldiaren aurretik, eguerdiko 12:00etan, txistua jotzea gustatuko litzaidake duela hamasei edo hamazazpi urtetik egiten dudanez bezala, eta arratsaldean Salbean abestuko dut. Egun berezia izango da inolako dudarik gabe. ■

Datorren ikasturtean euskaraz erosoago bizi nahi? Ba, Bidasoko AEKn, ohiko ikastaroez gain...



C2 maila

9:15-12:15
17:00-20:00

Astean behin
+ bakarkako lana
eta tutoretzak

MINTZA taldea

9:30-11:30
17:00-19:00
19:00-21:00

AL-AZ
AS-OG
AL-AZ / AS-OG

HIKA taldea

9:30-11:30
17:00-19:00
19:00-21:00

AL-AZ
AL-AZ
AL-AZ

Irungo
aek
euskaltegia

Harremanetarako: 688 74 66 33 / irun@aec.eus

Eusko Jaurlaritzak eta Irungo Udalak ikastaroa %100ean eta Hondarribiko udalak %75ean diruz lagunduko dute.



Gazteen Kanttuak nerabeen jaigune izan nahi du

Udalerrietako jaietako egitarauetan zaila izaten da nerabeentzako programazioarekin asmatzea. Zenbait, gainera, adin tarte horretan izaten dute edari alkoholdunekin lehenengo kontaktua, eta hori ahalik eta gehien atzeratzeko asmoz «jai kontsumo horien esparrutik aparte, espazio garbiago, seguruago eta atseginago» bat eskaintzen hasi zen Hondarribiko Udala duela zenbait urte. Bertako programazioa, ordea, «pixka bat pobrea» izan ohi zela adierazi du Ortzi Alonso Kultura zinegotziak. «Bazeuden ume edo gazte helduentzako jarduerak, baina nerabeentzako zerbait falta zen».

Gazte eta nerabeen aldetik espazio horren orain arteko jarraipena ez da handia izaten ari, «azkenean arreta guztia erdigunean dago eta badakigu

Nerabeentzako «espazio seguruago eta atseginago» bat izateko helburua du Gazteen Kanttuak. Batez ere DJak eta kontzertuak antolatu ditu udalak.

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

nerabezaroan joera zein den. Alkoholarekin lehen kontaktua 14-15 urte artean izaten da». Iaz Andoni Ollokiegi eta Miruak taldeek jo zuten. «Kostatzan ari da, baina apustua irmoa da», gogorarazi du zinegotziak.

Aurten, bultzada bat emateko asmoz, Gazteria Sailak iaz sortu zuten Gazteen

Kanttua dinamikarekin bat egitea erabaki dute. Gazteen Kanttua *Hondarribia* aldizkarian gazte-nerabeei eskaini zitzaizen zutabe bat da, haien ahotsa plazaratzeko espazio bat izan asmoz. «Ez du oihartzun handirik izan», deitoratu du zinegotziak. Horregatik, dinamika hori bultzatzeko eta nerabeei bideratutako espazio hori erakargarria izateko, izen bera eman diote eremuari.

Aurten, bereziki, DJak eta kontzertuak egongo dira han. Aldaketa nabarmena hilaren 6ko (biharko) egitarauan aurki daiteke. Urte luzez antolatu duten grafiti lehiaketaren ordean, kamiseta tailerra egingo dute. «Grafiti lehiaketak hainbat kokaleku izan ditu: Zezen Plazako zelaia, Kasino Zaharra, Itsas Etxea... Baina azken urteetan nolabaiteko *txispa* galtzen joana zen. Horregatik, egun horri buelta bat eman asmoz, eta kuadrillen afari eguna dela gogoan izanik, kamisetak egiteko ohiturari heldu nahi izan diogu. Garai batean Olinpiadetako kamisetak jantzita joaten ginen afaltzera. Ohitura hori galtzen joan zen, baina kuadrilla gazteak beren kamiseta propioak egiten hasi ziren. Hortaz, aurten lotura hori bilatu dugu».

Kamiseta tailerraren ondoren, DJ bat eta erromeria izango dira Kasino Zaharrean. Hilaren 9an jolasak eta apar festa egingo dituzte, eta hilaren



JAI EGITARAUA

GAZTEEN KANTTUA

- **Hilak 6 (bihar):** Esku kreatiboak, Erik Toritiño DJa eta Zatekeen erromeria (17:00-21:00).
- **Hilak 9, asteartea.** Jokoak eta gazte parkea (11:00-13:30 eta 16:30-19:00).
- **Hilak 10, asteazkena.** Techno Eguna - N97 Kolektiboarekin. Irune Muguruza eta Jote (17:30-00:00).

10erako techno eguna iragarri dute N97 kolektiboaren eskutik.

Etorkizunera begira gazte eta nerabeen interesekin lerrotutako egitaraua eta espazio indartsu bat sortzeko asmoz hausnarketa betean daudela adierazi du zinegotziak. Aurten espazioa Kasino Zaharretik Zezen Plazako belardira lekualdatzea egokia zen ala ez hausnartzen izan ziren, baina azkenean egungo kokalekuan mantentzea erabaki zuten, eguraldiaren arabera belardia lokaztu zitekeelakoan. Datorren urteari begira freskagarriak saltzeko zenbait postu ezartzea aurreikusi dute.

Musika: jaietako arima

Edozein herritako jaietan kontzertuek garrantzi handia izaten dute. Gazte zein nerabeei zuzenduriko egitarauan bezala, helduentzako prestatutako

Grafiti lehiaketaren ordezkamisetatailerra egingo dute hilaren 6an. Aldi berean, kontzertu ugari antolatu dituzte. A. Mendizabal

programazioan ere kontzertuak nabarmentzeko hitzorduak izango dira.

Horren guztiaren antolaketa otsailan hasten dute Hondarribiko Udalean, inauteriak igarotakoan. «Gure artean [teknikariekin batera] ideiak proposatzen hasten gara, eta aldi berean, herriko elkarteetako ohiko zein ezohiko proposamenak jasotzeko bidea zabaltzen dugu. Horren ondoren, elkarre laguntzaileekin bilera egiten dugu eta managerren proposamenak ere jasotzen ditugu». «Porrusalda» hori guztia ordenatu eta ondoren «aktualitatean aktibo eta entzutetsu» diren taldeen kontzertuak antolatzeko saiakera egiten dutela adierazi du Alonsok. Aurten, besteak beste, ezagunak diren Merina Gris, La Txama, Kaotiko, Mirua eta Errobi taldeak izango dira herrian.

2025eko festak, gainera, berritasun batekin hasiko dira: txosnagunea lehenago estreinatzeko aukera izango dute hondarribiarrek, udalak kontzertu egun bat gehiago programatu baitu gaurko (ostirala): Psilocybe elkarteak programatu du, Stoldak, Onavibe eta Zopilotes Txirriaos taldeak igoko dira Bentako oholtza nagusira.

Musika alde batera utzita, Baserritarren Eguna ere berritasunekin helduko da aurten. Baserritarren azokaz eta bertsolarien emanaldiaz gain, nekazaritzako makinaren erakusketa izango da ere. ■

Festen jarraipena, Bidasoko webgunearen bitartez

Orrialdeotako edukiak Hondarribiko Jai Nagusien traza batzuk besterik ez dira. Askoz ekitaldi eta jarduera gehiago izango dira. Izan ere, festak ofizialki etziko (igandea) txupinazoarekin (12:00etan, Arma Plazan) eta Hondarribiko Urrezko Intsigniaren ezartzearekin (12:30, udalletxean) hasiko badira ere, gaurko eta biharko (larunbata) badira ekitaldiak. Honakoak izango dira biharko esanguratsuenak: 10:30etan, Guadalupeko XLVII. Igoera lasterketa; 11:00etan, Kale Nagusian, haurren pregoia eta entzierro txikia; 00:00etan, Bentan, Merina Gris kontzertua eta DJ Aitana Grandesen emanadia. Egitaraua eta albisteak ikusteko joan HITZAren Bidasoko webgunera: bidasoa.hitza.eus.

Astelehenekoa izango da festen egunik handiena, Alardearen eguna. HITZA ekitaldiaren jarraipen zehatza egingo du, eta fokua jarriko du Jaizkibel konpainiaren bidean (konpainia parekide bakarra da) nahiz sor daitezkeen erreakzioetan. Alardearen gaiarekin jada izan dira albisteak, tartean udalaren ordutegi-ibilbideen ebazpena, Jaizkibel konpainiaren horren gaineko erreakzioa, edo Guztion Alardea taldeak egin duen lanketa berezia. Horiek HITZAren webgunean irakur daitezke.



Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: bidasoa.hitza.eus

Gora

Guadalupeko

Ama!

www.restaurantehondar.com
Zuloaga, 20. HONDARRIBIA. Tel.: 943 64 27 93

OLAGARRO

KULTUR ELKARTEA

Ongi irago herriko jaiak!



Indarkeria matxistarik gabeko jaiak helburu

Berdintasun Mahaiaren ekimenez Hondarribiko tabernariak erasoen aurrean nola jokatu jakiteko protokoloa jasoko dute.

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

Hondarribiko Berdintasun Mahaiak ostalariei zuzenduriko erasoen kontrako protokoloa osatu du 2025eko Hondarribiko Jai Nagusiatarako. Mahaikideek azaldu dutenez, udalak ostalariekin lanketarik egiteko astirik izan ez eta hutsune hura betetzeko asmoz aritu dira lanean. Izan ere, jaietan sozializazio espazio nagusi izaten dira tabernak, eta Berdintasun Mahaiaren zein udalaren mezua bertan presente egotea nahi zuten mahaikideek, «leku seguruen bila».

Eskuorriak eraikitze bilerak «nahiko praktikoak» izan dira mahaikideen hitzetan, eta Amaia Andrieuk prozesua nolakoa izan den kontatu du: «Berdintasun teknikariak hainbat

herritako protokoloak oinarri hartuta testu luze bat prestatu zuen. Ondoren, guk testu hura laburtu eta eskuorriak osatu genituen. Batez ere erreferentziatzeko telefonoa agerian utzi nahi genuen eta tabernariei jarraibide zehatz batzuk eman nahi genizkien, erasoaren bat ikusi edo baten berri badute zer egin behar duten jakin dezaten».

Jarraitu beharreko protokoloa

Eremu seguruak sortzeko bidean ostalarien establezimenduak «oso garrantzitsuak» direla iritziz Berdintasun Mahaiko kideek. Horregatik, tabernaren batean edozein eraso matxista ikusi edo haren berri izanez gero, jarrera aktiboa hartzeko eskatu dute, eta tabernariei zehazki, hurrengo jarraibideak eman dizkiete.

Lehenik, egiten ari direna utzi eta erasoaren jasan duen pertsona entzutea eta sinesgarritasuna ematea da eman beharreko lehen pausoa. Ondoren, konfiantzazko leku seguru batera eraman eta erasoaren jasan duenari laguntza eskaini behar zaio.

Ezetz erantzungo balu, bere espazioa errespetatzea funtsezkoa dela azaldu dute, baina kasu horretan erne mantentzea garrantzitsua dela zehaztu dute. Aldiz, baietz erantzungo balu,

Amaia Andrieu, Maria Casado, Tamara Sastre, Rocio Casado, Maria Jesus Berrotaran, Miren Intxausti, Ixabel Alkain, Maggie Bullen. I. Saiz

egoeraren araberako erabakiak hartu beharko liratekeela esan dute. Hau da, argiak piztu eta musika gelditu beharko litzateke. Segidan, tabernariak erasotzailearekin hitz egin eta argi utzi beharko lioke bertan ez dela eraso matxistarik onartuko eta tabernatik kanporatu beharko luke.

Ondoren, erasoak pairatu duenari arreta telefonoaren berri eman beharko lioke. Izan ere, pertsona horren eskubidea da arreta jasotzea, «baita salatu nahi ez badu edo bere egoera administratiboa irregularra bada ere», gaineratu dute.

Azkenik, gertatutakoaren lekuko izanez gero erasotzailearen inguruko informazioa (itxura, arroparen ezaugarriak...) jasotzen saiatzeko mezua zabaldu dute mahaikideek.

Gainera, sexu erasoak izanez gero osasun zentrora joan arte arropa edota gorputza garbitzea ekidin behar dela gogorarazi dute kideek, eta ahoko sexu eraso baten kasuan ezer ez edatea edo jatea garrantzitsua dela adierazi dute, era horretan frogak ez liratekeelako ezabatuko.

Arreta telefonoak

Jaietarako hurrengo laguntza telefona aktibatu du udalak: 688 718 797; eta honakoak urte osoan zehar 24 orduz martxan dauden zerbitzuak dira: Hon-

darribiko Udaltzaingoa: 943 11 313; Sexu Indarkeria, Hariberria (24 orduz ematen du arreta): 900 840 188; SOS Deiak: 112; SATEVI 24 orduko arreta telefona: 900 840 111.

Udalak, gainera, bi puntu more ezarriko ditu. Irailaren 3an, 4an, 5ean, 6an, 8an, 9an, eta 10ean San Pedro kalean ezarriko dute lehen puntua, 20:00etatik 23:00ak bitarte. Bigarren puntua, berriz, Itsas Etxean izango da irailaren 6an, 8an, 9an eta 10ean, 23:00etatik 08:00ak arte.

Lan handia aurretik

Berdintasun Mahaia maiatzean aurkeztu zuten ofizialki, baina aurretik ere lanean aritu direla adierazi dute kideek. Hilabeteen behin biltzen dira, eta udalaren aholkulari gisa jardute-

Jaietan edozein eraso matxista ikusi edo haren berri izanez gero, jarrera aktiboa hartzeko eskatu dute

ko eginkizuna dute; «hau da, udalari eskaerak egiten dizkiogu», esan du Maggie Bullenek.

Mahaiaren egitekoa hasi besterik ez dela egin ziurtatu dute. Festak igarota protokoloaren inguruko balorazioa egin eta alde horretatik gauzak hobetzen jarraitzeko helburua ezarri diote euren buruari, eta horrez gain, herrian berdintasunaren gainean dau-

den proiektuei jarraipena emango dietela aurreratu dute: «Emeki elkarteak egiten duen lanari jarraipena eman, eta herrian dauden atzeritar taldeekin elkarlanean arituko gara, inklusioa baita nahi duguna. Aldi berean, hainbat egitasmo eraiki nahi ditugu, eta bestetik, Alardearen kontua dugu».

Aurrerantzean «lan asko» dutela egiteke baieztatu dute denek, ez baita inoiz berdintasun teknikaririk izan herrian.

Bide horretan, Berdintasun Plana mahaikideen bide-orria izango dela azaldu dute kideek. Hura ontzen laguntzeko lanean aritu dira azken hilabeteetan, eta une honetan azken fasean aurkitzen da. «Bertan jasotakoari jarraipena egingo diogu eta saiatuko gara akuilu lana egiten».

Aurki hasiko diren festei begira «elkarrekiko errespetua» nagusi izatea eskatu dute mahaikideek, eta aldi berean, etorkizunera begira Alardearen gatazkarekin bukatzea. «Emakumeak garelako ezin gara gure festetako egun nagusian atera. Berdintasunaren aurkakoa da hori, eta, beraz, uste dugu ezin direla bi aldeak berdindatu. Ez dugu elkarbizitza arazorik, berdintasun arazoa dugu. Gainera, azken inkestan atera zen hondarribiarren gehiengoa Alarde bakar baten alde dagoela eta hori gauzatu egin behar da. Udalak ez du erraza hori aurrera eramatea oso herentzia kaltetua jaso duelako, baina filosofia aldetik beste oinarri bat izan beharko lukeela uste dugu, ausartagoa. Alardea indarkeria matxistaren adibide bat da». ■

Hondarribian pozik!



KBL

OARSO ELEKTRIZITATEA S.L.



943 25 91 79
electricidadoarso@gmail.com
kblelektrizitatea.eus



OSPATU ETA GOZATU HONDARRIBIKO JAIK!

GURE JAIK ZAINTZEA OSPATZEA ERE BADA

BIDASOS²⁰³⁰




DONE PEDRO
ITSAS TRESNAK
www.kofradia.org
Tel.: 943 642152
Txiplao, 8. 20280 Hondarribia



Gora Guadalupeko Ama!



DENDA

ORDUTEGIA:
Astelehenetik
larunbatera:
10etatik 20etara

Igandetan:
10etatik 14etara.

San Pedro kalea, 14.
Tel.: 943 64 24 31



Hondarribian euskaraz bizi gara! Jai zoriontsuak igaro!



Hondarribiko
Udala